

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

Arabako arreta goiztiarreko zerbitzuaren 2026, 2027 eta 2028ko kontzertazio sozialerako deialdiaren iragarkia

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren itun sozialaren araubidea eta hitzarmenak arautzen dituen azaroaren 7ko 168/2023 Dekretuaren babesean, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak Araban 2026, 2027 eta 2028. urteetarako arreta goiztiarreko zerbitzua ituntzeko deialdia egiten du.

Gizarte-ituntzeko prozedura honetan parte hartu nahi dutenek Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Kontratazio eta Araubide Juridikoaren Arloko bulegoetan (San Prudentzio kalea 30, 4. solairua, Vitoria-Gasteiz) eta Arabako Foru Aldundiaren web orrian (www.araba.eus, ibilbide honetan: <https://irekia-ifbs.araba.eus/eu/inicio>) aurkituko dituzte kontsultarako oinarriak.

Pertsona juridikoak, nortasun juridikorik gabeko erakundeak eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan identifikatutako beste subjektu batzuk behartuta daude administrazio publikoekin bitarteko elektronikoen bidez harremanak izatera, administrazio-prozedura baten edozein izapide egiteko. Hori dela eta, subjektu horiek hitzarmen honetan nahitaez bitarteko elektronikoen bidez parte hartu behar dute. Gainerakoek, dokumentazio bera Arabako Foru Aldundiko erregistro orokorrean (Probintzia plaza, 5 – 01001 Vitoria-Gasteiz) euskarri fisikoan ere aurkeztu dezakete.

Bi kasuetan, dokumentazioa hilabeteko epean aurkeztu beharko da, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik kontatzen hasita, eta dokumentazioa Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Kontratazio eta Araubide Juridikoaren Arlora bidali beharko da.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 8a

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE